El plazo de presentación de los productos, actividades o servicios finalizará el día 10 de marzo de 2006 y el fallo del jurado se hará público el día 24 de abril durante la celebración de la feria CONSTRULAN'06. Las bases del premio o información sobre las mismas se pueden obtener tanto en las sedes de Reed Business Information o del BEC, como en la página de CONSTRULAN, incluida en la genérica:

[www.bilbaoexhibitioncentre.com](http://www.bilbaoexhibitioncentre.com)

FUENTE: Aldizkaria Nº 122,  
Diciembre 2005

Buzón de consultas



eraikal@ej-gv.es

Si usted desea recibir por correo los boletines de información "ERAIKAL BERRIAK", envíenos una petición a través del buzón de consultas [eraikal@ej-gv.es](mailto:eraikal@ej-gv.es) indicando Destinatario, Empresa y Dirección de Correo.



## aurkibidea

### 1. Aginte Koadro Integrala eta Simulazio Eredua Euskadiko eraikuntza-sektorean

Euskadiko eraikuntza-sektorea etengabeko hobekuntza lortzeko prozesuan dago murgilduta; 90eko hamarkadaren erdi aldean ekin zitzaion aipatutako prozesuari, ISO 9001 UNE arauetan oinarritutako antolaketza-ereduen ezarpenarekin. Arau horiek zehazten zituzten, hain zuzen, Kalitatea Kudeatzeko Sistemen printzipioak eta betekizunak. Jakina, ordurako eraikuntza-jarduera arautzen zuten jardura-irizpide eta -arau teknikoak egon bazeuden, bai eta kalitatearen kontrola egiteko planak eta praktikak ere. Hala ere, aipatutako kalitatea kudeatzeko sistematika ezartzeko dinamikak aldaketa kualitatibo handia ekarri zuen sektoreko barne-funtzionamendura eta, era berean, eraikuntza-enpresak sektore industrializatuagoetan emandako urratsetara hurbiltzea ekarri zuen.

Horrela, antzeko prozesuak jarri ziren martxan eraikuntza-sektorean, bai laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketari dagokionez,

bai ingurumen-kudeaketari dagokionez, azken hori beranduago iritsi bazen ere.

Gaur egun sektoreko lehiakortasuna hobetzeko funtsezko faktore gisa aipa daitezke: sektoreak Euskadin dituen enpresa garrantzitsuenak, kudeaketa-sistemen kalitatearekin erlazionatutako faktoreak, gizabanakoen kalitatea eta eraginkortasuna, horien prestakuntza eta motibazioa, ideia berriak eta desberdinak sortzeko gaitasuna, ikerketa eta berrikuntzaren garapena material berriak eta lan-metodo berriak sortzeko bide bezala...; azken finean, bezeroen beharrei erantzuteko bide berriak landu eta lortu behar dira.

Sortu zenetik Eraikal programak hainbat ekimen barne hartu eta garatu ditu, eta gehienak kalitatea kudeatzeko sistemen, arriskuak prebenitzeko sistemen eta ingurumen-kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpenarekin egon dira erlazionatuta


1. Aginte Koadro Integrala eta Simulazio Eredua Euskadiko eraikuntza-sektorean.
2. Eraikintzako Ingurugiroari Buruzko Legeen Bilatzailea.
3. Bertsioa
3. Gidaliburu praktikoa: Erraztutako prebentzioaren kudeaketa Mikroeteentzat
4. Azterlan, Plangintza eta Aurrekontu Zerbitzua (APAZ), ISO 9001 arauaren arabeko ziurtagiridun
5. Visesak Zilarrezko Q-a lortu du
6. Hemeroteka
7. Itaun Postontzia

funtsean. Halaber, Euskadiko eraikuntza-sektorea osatzen duten enpresa-elkarteen ekimenarekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren ekimenarekin bat eginenez, programaren baitan bestelako proiektu berritzaile gehiago garatu dira, sektoreko lehiakortasuna hobetzeko proiektu berritzaileak hain zuzen.

Horrela, kudeaketa-mailako bikaintasuna sustatzeko hainbat esperientzia garatu dira, eta EFQM ereduari jarraitu zaio kudeaketa-mailako bikaintasuna lortzeko. Zentzu horretan, VISESA sozietate publikoaren erreferentzia bihurtu da sektorean, norabide horretan egin duen lan handiagatik. Ezin dugu ahaztu, gainera, Estatuko eraikuntza-sektorea ere ari dela EFQM ereduaren ezarpena bilatzen, eta asko direla enpresako praktikak eta emaitzak ebaluatzeko eta ezagutzeko prozesuetan murgilduta dauden Estatuko enpresak.

Argitalpen honen aurreko zenbakietan esan denaren ildotik, 2004. urtetik enpresa batek baino gehiagok ekin dio, Eraikaltzen bidez, bikaintasuna lortzeko prozesuari eta, xede horrekin, EFQM ereduaren zen-

#### MAPA ESTRATEGIKOAREN ADIBIDEA



bait printzipio ezagutzeko eta horiek ezartzeko proiektuak abiarazi dituzte.

Proiektu horiek garatu ondoren, enpresen baitan egiten den kudeaketarekin lotuta, hobetu beharreko hainbat arlo bereizi ahal izan dira; zenbait kasutan, gainera, parte hartu duten enpresa guztietan hobetu beharreko arloak direla azpimarratu da. Besteak beste, EFQM ereduaren oinarrian hartuta kudeaketa-ereduak garatzen dituzten enpresa askoren edo gehien kasuan, antzemandako zailtasunen artean kudeaketa-mailako informazioa behar den bezala egituratzeko arazoak azpimarratu beharko lirarteke eta, batez ere, erakundeek edo enpresek estrategiak, helburuak eta adierazleak definitzeko, alineatzeko eta hedatzeko dituzten arazoak.

Adegi eta Ascongí, Gipuzkoako Eraikuntza-enpresen Elkarteak, erakundearen ekimenez, eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren babes eta laguntzarekin, 2004ko amaieran proiektu berri bat abiarazi zen Eraikal programaren baitan. Proiektu berri horren bidez eraikuntza-sektoreko enpresei helburu estrategikoak definitzen, hedatzen eta kontrolatzen lagundu nahi zitzaizkien. OPE Consultores aholkularitza-enpresari eskatu zitzaion proiektuaren alderdi teknikoak garatzeko, eta horiek lantzeko eta egiaztatzeko orduan sektoreko enpresa garrantzitsuen laguntza eta lankidetzak lortu du.


2005eko bukaera aldera amaitu zuten aipatutako proiektua eta "Enpresa sustatzaile/eraikuntza-enpresa baten Aginte Koadro Integrala eta Simulazio Eredua" izenarekin aurkeztu zen. Hiru eduki-multzoren inguruan egituratu da proiektua, hain zuzen:

Aginte Koadro Integrala diseinatzeko eta garatzeko metodologia

Eraikuntza-enpresa/enpresa sustatzaile baten Aginte Koadro Integralaren berriraketa edukiak (estrategia, helburu eta adierazleak proposamena)

Simulazio Eredua (kudeaketa-mailako ikaskuntzara orientatutako aplikazio informatikoa batean oinarrituta, "business game")

Azken eduki-multzo hori lantzeko, hots, Simulazio Eredua osatzeko, Nafarroako Unibertsitateko Tecnun Campus Teknologikoarekin batera lan egin da. Hain zuzen, bere ardura izan da Simulazio Ereduaren edukiak eta programazioa garatzea eta, xede horrekin, aholkularitza-taldean sartu da.



Aginte Koadro Integrala-AKI" edo "Balanced Scorecard", 90eko hamarkadaren erdi aldera D.P. Norton-ek eta R.S. Kaplan-ek, Harvard Business School-eko irakasleak, ezagutzera eman zuten metodologia bat da. Arrakasta handia lortu du aipatutako metodologiak enpresetako zuzendaritza-karguen eta enpresariaren artean, eta helburu estrategikoen plangintza egiteko eta horiek zabaltzeko eredu garrantzitsuenetakotzat jo da. Aipatutako metodologia benetan lagungarria da enpresek dituzten kudeaketa-mailako arazoak konpontzeko –lehen aipatutako arazoak besteak beste-; gainera, erakunde baten zabalkundea eta aurrerapena kontrolatzeko orduan arrakasta ziurtatzen duen bitartekoa ere bada. Halaber, metodologia horrek gaur egun enpresek zein erakundeek EFQM bezalako "bikaintasun-ereduak" ezartzeko orduan sortzen den arazorik garrantzitsuenari aurre egiteko balio du, hain zuzen adierazle-bateria eraginkor eta koherente bat definitzea eta kudeatzea, hartara, horretaz baliatuz, erakundearen zein enpresaren datuen bidezko kudeaketa egin ahal izateko.

Aginte Koadro Integrala edo Balanced Scorecard definitzeko zera esan daiteke: "Kudeaketa-metodologia bat da. Metodologia horri esker, helburu koherenteak eta elkarrekin erlazionatutakoak zehazten dira enpresa edo erakunde baten strategiaren baitan; era berean, helburu horiek zehazteko eta neurtzeko adierazle jakin batzuk jarraitzen dira. Adierazle horiek martxan jarriko diren ekintza-planean daude erlazionatuta eta ekintza-plan horien bidez erakunde edo enpresako

kideen portaera aipatutako estrategiarekin bat etortzea lortu behar da".

Aginte Koadro Integralak, beraz, berau osatzen duten elementuen bidez, hala nola Mapa Estrategikoa edo helburu eta adierazlearen fitxak, enpresen baitan koordinaziorik gabe egoten diren alderdiak elkartzeko balio digu eta gure negozio-ikuskeraren "argazki" bat eskaintzen digu, hain zuzen elkarren artean erlazionatuta dauden helburu estrategikoak zehazten ditu. Eta helburu estrategikoen erlazioak ezagutzeko enpresa bera eta garatzen duen jardueraren hainbat ikuspegiatik edo alderditatik aztertzea komeni da, besteak beste: ikuspegi ekonomiko-finantzarioa, bezeroak-gizartea, barne-ikuspegi/prozesuak, erakundearen ikaskuntza-hazkundera-teknologia-pertsonak.

AKI bat aplikatzen hasteko, lehenik eta behin enpresaren Xedea, Ikuspegi eta Balioak zehaztu behar dira. Hortik abiatuta garatuko da enpresaren estrategia. Ondoren, enpresaren lerro estrategikoak zehaztu behar dira, eta hori egin eta gero, helburu estrategikoak zehaztu eta definitu behar dira. Helburu estrategikoak, jakina, lehen aipatutako ikuskera edo alderdien arabera multzokatuko dira:

- **Ikuspegi edo alderdi ekonomiko-finantzarioa.** Helburuak definitzeko orduan kontuan hartzen dira kudeaketa-mailako alderdi ekonomikoak eta finantzarioak, bai eta definitutako strategiaren bidez enpresak esparru honetan bete nahi dituen helburuak ere.

- **Bezeroak.** Enpresako bezeroei dagokien balioa emateak duen garrantzia kontuan hartzen da.
- **Barruko ikuspegia.** Enpresak kudeaketa-prozesuetan lortu beharreko helburuak barne hartzen dira, eta lehentasuna ematen zaie bezeroaren ikuspegitik balio handien dutenei.
- **Ikaskuntza eta hazkundea.** Teknologiaren eta pertsonen kudeaketa barne hartzen da alderdi honen helburuak erabakitzeko orduan.

AKIk erraza eta ulergarria izan behar duela kontuan hartuta, funtsezkoa da helburu estrategikoak aukeratzeko orduan enpresaren Xedea lortzeko garrantzia edo eragina izan dezaketen irizpideei lehentasuna ematea. Helburu estrategikoak zehaztu ondoren, gehien egokitzen zaizkien adierazleak aukeratu behar dira. Izan ere, helburu estrategikoak betetzen ote diren egiaztatzeko funtsezko elementuak dira adierazleak.

Proiektuan argiro deskribatzen da enpresa baten AKI definitzeko jarraitu beharreko bidea eta metodologia; era berean, berau lantzeko oinarriko gida bat eskaintzen da.

Hala ere, metodo bat lantzeko gida bat edo deskribapen bat eskaintzeak ez du lerro eta helburu estrategikoak zehazteko lana errazten. Enpresaren edo erakundearen Xedea eta negozio-estrategiak zehazteko beharrezko ezagutzak, jarrera eta ingurunea lortzeko zailak izaten dira sarritan. "Epe luzera" pentsatu behar da, baina presioa "epe laburrera" dela jakinda, eta hori oso zaila eta konplexua da.

**Konplexutasun hori errazteko eta zuzendaritza-taldeei egin behar dituzten gogoeta estrategikoko prozesuetan laguntzeko, proiektu honek eduki jakin batzuk proposatzen ditu Eraikuntza Sektoreko enpresentzat. Eduki horiek enpresen beharretara egokitutako edukiak dira eta Aginte Koadro Integrala osatzeko lagungarriak dira.** Horrenbestez, kausa-efektuzko irizpideekin erlazionatutako proposamen txukuna egiten digu orain aurkezten dugun proiektuak:

- **Jarduera-lerro estrategikoak.** Eraikuntza-sektoreko enpresa garrantzitsuetan antzemandako lerro estrategikoak dira. Argitaratutako informazioa aztertuz lortutako lerroak dira eta balidazio-prozesuan parte hartu duten enpresekin egindako elkarrizketetan egiaztatu ahal izan dira.


- **Helburu estrategikoak.** Helburu estrategikoen eta zehaztutako estrategien artean kausa-efektuzko erlazioa ezarri da.
- **Adierazleak.** Adierazleen eta proposatutako helburu estrategikoen artean erlazioa ezarri da.
- Enpresa sustatzaile/eraikuntza-enpresa batentzako **Ereduzko Prozesuen Mapa** egiteko proposamen bat, dagozkion prozesuko fitxekin batera.

Amaitzeko, proiektuaren hirugarren eduki-multzoan barne hartzen da Simulazio Eredua. Oro har, erabakiak hartzeko orduan eskura dagoen informazioa erabiltzen da. Kausa-efektuzko erlazioek, normalean, erabakiak baldintzatzen edo orientatzen dituzte. Erabakiak hartzeko prozesuak beharrezkoak ditu kualifikazioa, trebakuntza eta praktika, baina enpresek normalean izaten duten kudeaketa tirabiratsuek ez dio batere laguntzen ingurune errealean egin beharreko ikaskuntzari.

Aginte Koadroko edukien elementu osagarri moduan diseinatu eta garatu da **Simulazio Eredua**. Funtsean, enpresa baten zenbait kudeaketa-prozesuren edo kudeaketa-azpisis-

temaren funtzionamendua erraztean datza Simulazio Eredua. Horren bidez, eta **software-bitarteko egokiak erabiliz, erabakiak hartzeko prozesuen simulazioa egin ahal da eta erabaki horiek izango dituzten ondorioak edo emaitzak "birtualki" ezagutu ahal dira.** Hala ere, eredu honen bidez ez da enpresa sustatzaile/eraikuntza-enpresa baten kudeaketaren errealtatearen erreproduktzio zehatza egin nahi, izan ere, horrelako kudeaketa hain da korapilatsua, ezen ezinezkoa izango litzatekeela horrelako helburu handizalea lortzea. Haatik, **argi dago mota honetako bitartekoak erabiltzea lagungarria izan daiten enpresen zuzendaritza-taldeen hartzen dituzten erabakien eta lortzen diren emaitzen arteko elkarreraginaren eta erlazioen gainean gogoeta egiteko eta horiek ulertzeko.** Ikaskuntzaren ikuspegi horri jarraituz landu da, hain zuzen, Simulazio Eredua.

Proiektua amaitzean, Eraikal-ek proiektuaren edukiak ezagutzera emateko jarduerak martxan jartzea aurreikusi du, eta horiekin batera proiektua ezartzen laguntzeko prestakuntza-ekintzak eta ekintza osagarriak garatuko dira. Horiei guztiei buruzko informazioa emango da aldiro elkartearen bidez eta Eraikal-en web-orriaren bidez ([www.ej-gv.net/eraikal](http://www.ej-gv.net/eraikal)).



## 2. Eraikintzako Ingurugiroari Buruzko Legeen Bilatzailea. 3. Bertsioa

Gaur egun, eraikuntza-enpresa batek ingurumenari buruzko legeria ugari kontuan hartu behar du, bai nazioartekoa, bai nazionala, autonomikoa eta tokikoa. Honek, alde batetik, kontuan hartu beharreko betekizunak ezagutzea eta interpretatzea dakarkio, eta bestetik, segimendua eta kontrola egitea, hau da, betekizun horiek jasotzea eta eguneratzea. Ondorioz, kasu askotan enpresari prozesu horiek oso zailak egiten zaizkio.

Enpresaren alderdi orotan etengabeko hobekuntza lortzeko eta gure ingurunea zaintzeko kultura eta kontzientzia zabaltzeko helburuarekin, **ASCONGI erakundeak aipatutako bitartekoa aurkeztu zuen Eraikal-en eta 2002ko urritik eraikuntza-sektoreko edozein enpresak eskura dezake.**

Jakina, ingurumen-mailako legeria etengabe aldatzeaz gain, lege berriak sortzen dira eta, ondorioz, ezinbestekoa da bilatzaileak eskaintzen dituen edukiak etengabe eguneratzea. Hori dela eta, **Eraikal-ek bilatzailearen hirugarren bertsioa aurkeztu du dagoeneko (bigarrena 2003ko urrian aurkeztu zen eta**

**Eraikal-en web-orrian dago eskuragarria nahi duenarentzat).**

**Ingurugiroari buruzko legeen bilatzailea hainbat fitxek osatzen dute, eta fitxarietan barne hartutako informazioaren legeria betetzeko eman beharreko urratsak zehazten dira. Horrez gain, modu erraz eta bakunean egituratu dira fitxak eta oso erraza da bilatzailea erabiltzea. Informazioa eskuratzeko modu bat baino gehiago eskaintzen du bilatzaileak: alde batetik gaiaren arabera bilaketa egin daiteke eta, bestetik, prozesuen arabera.**

### Bertsio berriaren berrietasunak.

Ingurugiroari buruzko legeen Bilatzailearen hirugarren bertsioan sektoreko enpresek kontuan hartu beharreko **legeria-betekizun berriak** barne hartu dira. Era berean, eskaintzen duen **edukia eguneratuta** dago, alegia, aurreko bertsioaren eta oraingoaren artean legeriak eza gututako **derogazioak eta zabaltzeak** barne hartu dira.

Ingurugiroari buruzko Legeen Bilatzailea, eraikuntza-jarduerak garatzen dituzten enpresei eta urbanizazio-lanak egiten dituztenei kontuan hartu beharreko ingurumen-legeriaren bilaketa azkarra eta interpretazioa egiten laguntzen dien bitartekoa da.

Ingurumenari buruzko legeen Bilatzaileak bere bigarren bertsioan eskaintzen zuen informazioaz gain, oraingoan **lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko informazioa, isuri atmosferikoari buruzko arauak, bizitza erabilgarria agortu zaien ibilgailuen behin betiko bajari buruzko informazioa, eta abar barne hartu da.**

Indargabetu diren legeak, bai eta aldatu direnak ere, behar den bezala gorde dira fitxetan; halaber, legeen eta araudien arteko bateragarritasuna zaindu da, maila desberdinetako informazioa barne hartu da eta legerian edo araudietan landutako alderdiei buruzko informazioa eskaintzen da.

Hemendik gutxira Bilatzailearen bertsio berria eskuragarri jarriko da Eraikal-en web-orrian, sektoreko enpresak guztientzat.

## 3. Gidaliburu praktikoa: Erraztutako prebentzioaren kudeaketa Mikroeteentzat



AROTZGIk (Gipuzkoako Zurginen Ugazaba Elkarteak) "*Gida praktikoa: Erraztutako prebentzioaren kudeaketa Mikroeteentzat*" argitaratu du Eraikal programaren barruan, bai paper euskarrian bai euskarri elektronikoan. Gidaliburu honek honakook ditu zati:

- Gidaliburu praktikoa. Erraztutako prebentzioaren kudeaketa Mikroeteentzat.
- Aroztegietako segurtasunari buruzko gidaliuburu.

Gidaliburuaren helburua enpresan laneko arriskuen prebentzioa sartzeko erraztea da eta hura laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko eredu erraztuan oinarriturik

dago. Eredu hori AROTZGIk egin du. Eta K-21 kalitatea kudeatzeko ereduari sartzeko diseinatu da. Bertan jardueraren alde batera lagata dago eta aplikazio eremua zabala da.

AROTZGIk aipatu ereduak darabil kudeaketa-tresna gisa, prebentzioa kudeatzeko sistemak ezartzeko. Proiektu hori Eraikal programaren baitan garatzen ari da.

Aipatu gidaliuburu izan nahi duten erakundeak Elkartearengana zuzendu ahal dira, zeinen datuak jarraian emango baitira:

AROTZGI

Belartza Poligonoa

Gurutzegi kalea, 12-1. (9. bulegoa)

20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 320 504

Fax: 943 326 940

## 4. Azterlan, Plangintza eta Aurrekontu Zerbitzua (APAZ), ISO 9001 arauaren arabera **ziurtagiridun**

Azterlan, Plangintza eta Aurrekontu Zerbitzuak (APAZek), Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Plangintza eta Etxebizitza Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren menpekoa denak, arrakastaz gainditu berri du UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera bere Kalitate Sistema ziurtatzeko auditoretza, ziurtagiria AENOR-en bitartez lortu duelarik.

Horretara, APAZ ziurtagiri hau lortzen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko lehenengo Zerbitzua da. Hortaz, argi dago bertako jende guztiak Kalitatearekiko eta Hobekuntza Etengabearekiko konpromisoa hartu duela. Izan ere, jende hori Eraikal programa 1998an abioan jartzeko arduraduna izan zen, baita hura urteotan guztietan kudeatzeko ere.

Ziurtagiri hau lortzea ereduzko ekintza da beste zerbitzu eta herri erakunde batzuentzat eta Eraikal baliatzeko duten enpresentzat. Horrez gain, APAZ zerbitzuan kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri, amankomuneko lan prozesu eta irizpideak ezarri eta hobekuntzak egongo dira, eta hobekuntzok hark burutzen dituen zerbitzuetan eta produktuetan islaturik geratuko dira.

Helburu hori zuela, APAZek Kalitatea Kudeatzeko Sistema bat garatu eta ezartzeko prozesua 2004ko martxoan hasi zuen. Hasieran prozesuak zehaztu gero sistemaren agiri guztiak egin zituen.

Lanean jo eta ke ia urtebetez ibili ondoren, abioan jarri zen Kalitatea Kudeatzeko Sistema. 2005eko ekainean, barruko auditoretza egin zen eta horren ondorioz hainbat hobekuntza-ekintza azaldu ziren. Azkenean lortu du aipatu Zerbitzuak sistema ziurtatzea 2005eko urrian.

APAZek garatzen dituen jarduera nagusiak honako hauek dira:

- **Azterlan eta Estatistikak:** arlo honetan etxebizitza arloko informazio guztia sortu, administratu eta hornitzen da.
- **Plangintza, jarraipena eta ebaluazioa:** Bertan etxebizitza arloko epe ertain eta luzerako plangintza estrategikoko politikak zehazten eta Etxebizitza Plan Zuzentzaileak eta Plan Bereziak garatzen



egiten da lan. Gainera, haiek burutzearen benetako jarraipena egiten da eta, hala denean, doikuntzak proposatu.

- **Aurrekontuak egin eta kudeatzea:** APAZek etxebizitza-programako gastuen urteroko aurrekontua egin eta kudeatzen du, hura indarrean dagoen Etxebizitza Plan Zuzentzailearen urteko helburu hasierakoekin edo zuzenduekin bat baitator. Ezarritako helburuak, ekintzak eta burutzapen-adierazleak kontutan harturik, planifikaturiko helburuak eraginkortasunez eta eragingarritasunez lortzeko beharrezko den gastu maila zehazten du.

2005eko azaroaren 18an ibiltzen hasi den etxebizitza arloaren eragiketa funtzioen

arestiko berrantolaketak Eraikal programaren funtzioa Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza berriari eman dio.

APAZek ziurtagiria lortu duela eta, Eraikal Berriak deiturikoa Mario Yoldi zerbitzu honetako arduradunarekin elkarrizketan aritu da.

*Zenbat pertsona egiten duzue lan APAZ zerbitzuan?*

Egun 8 pertsona egiten dugu lan: Zerbitzuko arduradun batek, ekonomia eta aurrekontuak kudeatzen espezializaturiko hiru pertsona, azterlanak eta estatistikak egiteko eremuetan espezializaturiko pertsona bik, kalitatea kudeatzen espezia-

lizaturiko pertsona batek eta pertsona administrari batek.

*Zuen jarduerako zein arlok jaso dute ziurtagiria?*

- 1) Etxebizitza Politiken Plangintza, Jarraipen eta Ebaluazioak,
- 2) Etxebizitza Programaren Aurrekontuak egin eta kudeatzeak.
- 3) Etxebizitzari buruzko Azterlan eta Estatistikek.

*Zer zela eta hartu zenuten ziurtatze-prozesu horretan parte?*

1998az geroztik ia egunera arte, Eraikal programa diseinatu eta eraginkortasunez kudeatzeko arduradunak izan gara. Ari naizen programa EAEn egoitza kalitatez hobekien etengabe hobeto erakitzea sustatzekoa da.

Zerbitzuko batzuek, Eraikal sortu baino lehen, kalitateari eta hobekuntza etengabeari buruzko gaietan prestatuz joanak ginen (Euskal gaiten ikastaroei esker bereziki) eta, era berean, enpresak kudeatzeko, politika estrategikoak zehazteko eta beraien jarraipena egiteko tresna berriak ezagutzeko gogo handia izana genuen.

Formalizatu gabeko gustua genuen Zerbitzuek kalitatearekiko eta hobekuntzarekiko, eta kalitatezko lanaren praxi eragile zegoen. Hori guztia ageri zen gure zerbitzuak egiten genituen era zehatzean.

Gainera, uste dut ezen sektore osoarentzat ausartasun nabarmenez hobetsi ditugun abiaburuetako batzuk atxiki zitzaizkigula.

Kalitatearekiko eta hobekuntza etengabearekiko grina dela bide, APAZen ziurtagiria lortu dugu, gure prozesu, zerbitzu eta produktuak etengabe hobetzea lortzeko asmo garbiz, gure bezeroen onerako. Eta gure jardueren eraginkortasunari eta eragingarritasunari buruzko beharrezko kontrolak egiten ditugu.

Arestian gure Zerbitzuko kideetarik lauk 2000ko ISO 9001 arauaren arabera barruko auditoreen ziurtagiria lortu dute. Hori dela eta, oinarriak instalaturik ditugu eta prestatu eta inplikaturiko pertsonak ditugu erakunde osoaren kalitateranzko eta hobekuntza etengaberanzko bilakaerarekin jarraitu ahal izateko.

Nolabait, ildo horretatik, letra askoko hitzak aipatu behar diren apaltasunaz, gure ziurtagiria ereduak neurri izan dezakete erakundeak gainerakoek.

*Zein fase izan zaizue zailena eta zergatik?*

Beharbada, hasierako fasea. Izan ere, bertan Kalitatea Kudeatzeko gure Sistema diseinatu eta azal zitezen nahi genuen abiaburu guztiak orekaz sarturik egongo ziren Eskuliburua proposatu behar izan genuen.

Nahikoa kostatu zitzaigun gure burua berriro ulertzea eta nahi genuen guztia idatziz azaltzea.

Sistema zehaztea izan zen, zalantzarik gabe, guretzat nekezena.

*Zein dira izan dituzuen arazoak?*

Kudeaketa prozesuak ezarri dugu eta hobekuntzarako aldizkako bilerak izan ohi ditugu. Baina gehien kostatu zaiguna gure prozesuetan barruko kontrolak eta eboluzio-adierazleak zein diren argi zehaztea izan da. Kontrolguneak zehaztea kostatu zaigu.

APAZ zerbitzuak bere lana zerbitzu eta produktutan banatzen du. Produktu-mugarriak aztertu direnean lortzen errazak izan dira analisi-parametroak, baina,

zerbitzu-mugarriak aztertu direnean, askoz zailagoa izan da haiek lortzea.

*Oso luze eta zaila izan al da kalitate-sistema ezartzeko prozesua?*

Ez, alderantziz baino: hura hasierako fasea (fase hori geldoa izan zen, ohiko jarduerak egiteari utzi eta zerbitzu berriro pentsatzeko denbora hartu behar izan baitzen) bukatuta, sistema denbora erlatiboki laburrean ezartzeko gai izan gara. Urtebetekoa baino luzeagoa izan ez den prozesu globalaz ari gara.

Oinarriak honakook izan dira: historikoki oso landutako prozesuak, langile prestatu eta gogotsuak eta gure zerbitzuak egiteko kalitate maila altua, kalitate-sistema egin eta ezarri aurretikoak.

Kalitate-sistema ezarriarik, kontrol gehiago ezarri ditugu eta, funtsean, helburuka kudeatzen dugu. Horiek esplizituki egiten ditugu orain. Baina, filosofia hori, haiek idatziz ez aurkeztu ez gainontzekoen bitartez ez ziurtatzeko, aspaldidanik garatu dugu. Horregatik, ez zaigu oso aldatu horren gainean jarduteko era. Horren ondorioz, kalitate-sistema azkar eta erraz samar ezarri genuen.

*Zein abantaila lortu dituzue prozesu honetatik?*

Prozesu hau oso lagungarria izan zaigu gure burua berriro ulertzeko eta gure lana eta bertako erantzukizuna sakonago ulertzeko.

Gure Zerbitzua etxebizitza arloaren barruan erlatiboki txikia dela badakigu. Bera kopuru bihurtuz gero, 150etarik 8 pertsonaz ariko ginatke.

Alabaina, gure kulturak, kalitatean oinarrituak, honakoa ahalbidetu digu: taldeetan lan egitea, prozesu ikuspegia hartzea, barruko eta kanpoko bezeroaren asetasuna sistemaren lehentasun nagusi bezala jartzea eta etengabe hobetzea edota hobetzen saiatzea.

*Eta zein eragozpen?*

Oztopo txikiagoa dago, Kalitate Sistematik datorren dokumentazioa kontrolatzeko arazoekin zerikusia duena.

Kalitate-sistemaren agiri kopurua gehitu da, ahalik eta gutxien gehi dadin ahalegin du garen arren. Hori dela eta, sistema, prozesu batzuei begira, zail egiten da.



Gure esperientziaren bitartez baiezza dezakegunez, hortik oraindik dabilen ideia-elkarketa, funtzionarioak paperarekiko gustuarekin lotzen dituen, ez da oso zehatza.

Nire ustez, oztoporik handiena gu Herri Administrazioaren eta, zehatzago, Erakunde Administrazioaren eremuan mugitzea da. Izan ere, haien balore-eskala eta ibilera, zenbaitetan, oztopo izaten da korrante eta eraberriketa berriak ezartzeko.

*Zer ekarri du Kalitate-ziurtagiria lortzeak APAZentzat?*

Lan egiteko era bat esplizituki aintzatestea, zeinek-eta kanpoko erakunde lokabe batek.

Beti saiatu gara kalitateari begirako metodoak garatzen, baina orain lana aintzatestsi digute; eta pozik gaude.

Gainera, ziurtagiriak eta beraren etorkizuneko berrikuntzek etorkizunean nahi dugun hobekuntza etengaberako ahaleginak mantentzeko pizgarri gisa balio izango digute.

*Uste duzu prozesu hau saileko beste zer-bitzu batzuetara zabalduko dela?*

Bai. Une honetan Etxebide Euskal Etxebizitza Zerbitzuaren Kalitate Sistema diseinatu eta garatzen ari da eta ziur nago hau ez dela azkena izango.

*Zein dira hobekuntza etengaberako hartuko dituzuen hurrengo urratsak?*

*Zein helburu finkatu diozue zuen buruari?*

Lehenengo helburua, eta handiena, zer iritsi dugun jakitea eta hartutako konpromiso mailok hartzen irautea da.

Orain hasten da guretzat zaila den etapa, iritsitako jomuga lortuta atseden hartu eta lasaitu beharra sentitzen delako. Baina hura harago doa eta bultzada mantendu eta berritu behar dugu, eta gaiaz orokorrean jabeazteko lanetan parte hartu, beste batzuei beren bidean lagundu eta, azken batean, gure buruari hobekuntza etengaberako konpromiso berriak ezarri, administrazioak hala utziz gero, osoko kalitateranzko eta bikaintasuneranzko bidean aurrera egitea ahalbidetzen digutenak.

## 5. Visesak Zilarrezko Q-a lortu du

Euskalitek (Kalitaterako Euskal Fundazioak), Visesa Vivienda y Suelo de Euskadi S.A.ri Zilarrezko Q-a eman dio sari, erakundea Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan kudeaketa arloan aurreratuenetarikoa den erakunde gisa aintzatestsi duelarik. Horretara, hura sari hau lortzen Euskadiko lehenengo enpresa etxebizitza-sustatzailea izan da.


Zilarrezko Q eta Urrezko Q sarien bitartez eraberriketan eta kudeaketan aurreratuenak diren erakundeak ezagutzen dira eta beraiek egindako ahaleginak eta kudeaketan iritsitako bikaintasun maila aintzatesten dira. Sari honen helburua beste euskal erakunde batzuei pizgarri eta aipagune gisa balio izatea da.

Visesak barruko aldaketarako eta kudeaketako hobekuntzarako eta berrikuntzarako prozesua duela hiru urte eta erdi hasi zuen. Sari hori jaso du, zeren eta bere buruari finkatutako helburua betetzen baitu. Hurrengo urratsa sistema sendotzea izango da.

Erakundearen estrategia berriaren bitartez "oso igo" nahi da etxebizitza-sustapena, eta sozietate partekatuen potentzialtasun guztiak garatu eta negozio-ildo berriak ireki.

Visesak, helburu horiek betetzeko, Europako EFQM eredu hartu du kudeaketa-sistema gisa, eta **Eraikal Programaren** markoaren barruan garatu du eta egitura osoa prozesukako kudeaketari egokitu dio, ikaskuntza eta hobekuntza etengabeetan oinarrituta dagoenari.

Xede nagusia jarduera guztietan eta doakien talde guztientzat balio erantsia sortzea da, hala nola, erakundearen bezeroentzat, akzio-dunentzat, hornitzaileentzat eta kideentzat. Ildo horretatik, Visesak Eraikaleko hainbat proiektutan jarduten du trakzio-erakunde gisa ere, enpresetan aipatu EFQM eredu ezartzea sustatzen.



VISESA baltzu publikoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atxikita dago. Autonomia Erkidegoan babespeko etxebizitzak, kalitatezkoak, sustatzea du eginkizun. Horren bidez gauzatu nahi da Eusko Jaurlaritzaren asmoa, gizatalde guztiek etxebizitza duina izateko eskubidea betetzea alegia.

1990. urtean eratu zen, eta 1992an hasi zen lanean. Ordutik hona, 5.098 etxebizitza amaitu ditu, eta 3.035 dauzka eraikitze bidean, horrek esan nahi du Euskadiko lehenengo etxe sustatzailea dela.

## 6. Hemeroteka

### Eusko Jaurlaritzak laneko ezbeharrak urritzeko presazko plana onetsi du

Beraren arabera, segurtasunik eza dela eta zigortutako enpresek ez dute lehiaketa publikoetan parte hartzerik izango.

Eusko Jaurlaritzak Euskal Herrian laneko istripuen ondorioz hildakoen kopuruaren igoera gelditzen saiatzeko txokeko plana aurkeztu du. Joseba Azkarraga Laneko sailburuak Eusko Jaurlaritzak abioan jarriko zituen neurriak zehaztu zituen. Beraien artean nabarmendu behar denez, enpresa-erregistroa sortuko da Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legea ez betetzeagatik modu larrian zigortu diren enpresak kontrolatzeko. Aipatu zerrendan agertzen diren enpresek ezin izango dute euskal herri administrazioak antolatzen duen ezin lehiaketatan parterik hartu.

Sailburuak azaldutako beste neurri bat ikuskatzaile kopurua gehitzea da, eta Eusko Jaurlaritzak eskumenak dituen eremuetan haren ikuskatzailetza abioan jarzea.

*ITURRIA: Gremios egunkaria, 2005eko abendua*

### III. CONSTRULAN sariak: "Eraikuntza eta Berrikuntza"

Aurreko edizioan bezala, Bilbao Exhibition Centrek eta Reed Business Informationek "Eraikuntza eta Berrikuntza" sarietarako deialdia egin dute. Sarion bitartez bereizi gura dira azken 12 hilabeteetan eraikintzaren, ekipamenduaren eta instalazioen sektoreetan agertutako produktu, jarduera edo zerbitzurik berritzaileenak. Haien helburua beren jarduera CONSTRULAN lehiaketak barnean hartzen dituen sektoreetan garatzen duten zerbitzu



enpresengan eta fabrikatzaileengan teknologi berrikuntza piztea da. Haren bigarren edizioa 2006ko apirilaren 26tik 29ra bitartean egingo da.

Produktuak, jarduerak edo zerbitzuak aurkezteko epea 2006ko martxoaren 10ean bukatuko da eta epaimahaiaren iritzia apirilaren 26an kaleratuko da CONSTRULAN'06

azoka egiten den bitartean. Sariko oinarriak eta beraiei buruzko informazioa Reed Business Informationen edo BECen egoitzetan lortu ahal dira, edo honako orokor honetan sarturiko CONSTRULANen orrialdean: [www.bilbaoexhibitioncentre.com](http://www.bilbaoexhibitioncentre.com)

*ITURRIA: Aldizkaria, 122 zbk., 2005eko abendua*

Itaun postontzia



eraikal@ej-gv.es

"ERAIKAL BERRIAK" informazio-aldizkariak postaren bidez jaso nahi baduzu zure eskaera itaun-ontziaren bidez "eraikal@ej-gv.es"-era Hartzaile, Enpresa eta Helbidea adierazten.